

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Lanbide Heziketaren inguruko “Industria 4.0” jardunaldi teknikoak egingo dira maiatzaren 22tik aurrera

*Lanbide Heziketako irakasleei zuzendutako 4 eguneko jardunaldiak Iruñeko San Juan Donibane ikastetxean izango dira 22tik eta 25era eta Hezkuntza kontseilari Maria Solanak irekiko ditu*

Ostirala, 2017.eko maiatzak 19

Ekoizpen-prozesuen berrikuntzak eta arlo profesionalen dauden baliabide eta material premiak bertatik bertara ezagutzeko asmoz antolatu ditu jardunaldiok Hezkuntza departamenduak eta hainbat enpresa, profesional eta

Lanbide Heziketako hainbat irakaslerekin batera. Era horretan, Lanbide Heziketan aritzen diren irakasleek profesionalen eskutik jasoko dituzte arlo horiei dagozkien esperientziak eta beharrezko informazioa.

Industria 4.0 jardunaldietan, lau egunez, ikusmen artifiziala, eLearning esperientziak, Big data, gauzen internet, 3D inpresorak eta prototipoak eta robotika landuko dituzte, besteak beste.

Lanbide Heziketako irakasle guztiei zabalik daude jardunaldiak eta alde zuzenetik izena eman behar da, zein sesio jarraitu nahi den zehaztuz, hurrengo helbidean: <http://www.fpdonibane.com/inscripcion>

### Solana Kontseilaria irekieran

Astelehenean hasi eta ostegunera bitartean luzatuko dira Industria 4.0 sesioak, guztiak ere arratsaldeko saioan. Jardunaldiok Hezkuntza kontseilari Maria Solanak irekiko ditu, astelehenean 16:15ean. Ondoren Siemens enpresako Luis Garrido lehenengo eta Raul Garcia bigarren arituko dira. Lehenengo saioa Kunak enpresako Miguel Escribanok itxiko du eta gauzen internetez arituko da.

### Lehen mailako hizlariak

Era boluntarioan arituko dira hizlari guztiak Lanbide Heziketa profesionalaren inguruko saio hauetan. Izan ere, asmo nagusia da lanbide heziketan dabilzan irakasleen eta baliabideen antolaketa ahalik eta zuzenena egitea, irakasleen euren motibazioa ahaztu gabe.

Lau egunetan zehar izango dira hitzaldien inguruko xehetasunak hurrengo loturan daude bilduta:



Jardunaldiak iragartzeko kartela..

<http://www.fpdonibane.com/documents/10179/15153034/DIP+JORNADAS+IND+4.0.pdf/31341cc4-2a85-4fa1-a554-d012c053ead3>